




65. zk | 2016ko abendua

Berbarotarra



ASMO BARRI ON!
2017

2016a, mendi-buelta baten moduko urtea

URTEA AMAITZEAR DUGUN HONETAN, 2016AK UTZI DIZKIGUNEN ERREPASOA EGINGO DUGU

Urte bisustue, latza ta estue dio esaera zaharrak, baina guretzat ez da latza izan, ezta estua ere. Akaso gorabeheratsua; mendi buelta baten tankeran, zelaia eta malkarrak dituen horietakoa. Egin dezagun, bada, urtearen errepasoa.

Urtarrileko aldatsa otsailera arte luzatu zitzaigun, eta martxo hasieran lortu genuen gaina egitea, udalekuetan izena emateko epea zabaldu genuenean. Hori zen hori jendetza!

Udaberrian, GUKAtik hikara egin genuen salto, eta eroriko itzela hartu genuen Berbaroren txokoa itxi behar zela jakiterakoan.

Edozelan ere, txiri-txiri aurrera egitea lortu genuen. Bidean, lagun batzuk agurtu genituen, baina beste batzuk ere batu zitzaizkigun koadrilara.

Udalekuak itzelak izan ziren, mundialak, kolosak! Gorputzerako pizgarri eta arimarako gozagarri.

Oporrosteian, ikasturte hasierako martxa hartzea kosta arren, azken hilabeteak pirritan egin ditugu: sanfaustoak, Haur Literatur Aretoa, Euskarak 365 Egun kanpaina, Saguganbara, #365ipuin lehiaketa...

Jira eta buelta, arrapaladan heldu gara urte amaierara, arnasestuka, baina 2016an buelta ederra egin dugulakoan.

Urte berri, asmo berri dio beste esaera zahar batek. Eta, 2016 eta 2017 urteen bidegurutzean gauden honetan, ez dakigu zer ekarriko digun urte berriak. Dela osteratxo bat, dela lasterketa bat, gogotsu ekingo diogu, orain arteko moduan. Izan ere, *gustuko lekuan, aldaparik ez*.

Itzartu gazte taldea martxan

Udazkenarekin batera, azaroan ekin genion 10-14 urte bitarteko gazteentzako aisialdi-eskaintza euskaldun, propio eta alternatibo bat eskaintzeari.

Hasiera oso arrakastatsua izan zen azaroaren 13koa. Ehundik gora gaztek eman zuen izena, ekintzan parte hartzeko gogoz. Probaz jositako ginkana bat egin genuen: botilaren challenge famatua, makila eroa, 3 lerroan, erreleboak, tragalak... Itzel pasatu genuen hurbildutako gazteekin. Abenduaren 18ko asteburuan ere, ez dugu aspertzeko tarterik izan; jolas kooperatiboak egin ditugu-eta.

Gabonetako oporretarako, 3 eguneko egonaldia antolatuta dugu, abenduaren 27tik 29ra bitartean. Arabako Ozeta herriko Garaioneko sorgingunera joango gara.

Euskararen ginkanan ere parte hartuko dugu Itzartuko hezitzaileok, euskaraz eta euskararekin jolastuko dugu. Ea 3.000€ko zakua lortzerik dugun!



Elkarlana izan da aurtengo San Fausto jaietako gako

Aurten ere, euskalgintzaren gunea atondu dugu San Fausto jaietan. Egutegia dela eta, inoiz baino jai luzeagoak izan ditugu, eta, ondorioz, guneak dakarren lana ere tamainakoa izan da.

Hala ere, ederto ibili gara, denon parte-hartzeari eta lanari esker. Zalantza barik, horixe izan da aurtengo jaietatik azpimarratuko genukeena: elkarlana. Elkarlan hori barik, ez litzateke posible izango halako jai-giroa sortzea. Beraz, eskerrik asko guztioi.

Era berean, aipatzekoa da euskal musikaren alde egin dugun apustua; giro ona eta euskarazko kanta bateragarriak direlako, jakina. Horrez gain, GUKAko karparen kasuan, Dj Bull, Dj Kool eta Dj Jotatxo izan genituen goizaldeak girotzen.

Zoritarrez, jaiak ere izan dute beraien alde iluna. Izan ere, eraso bat izan zen txosnagunetik hurbil. Baina, herritarrak, elkarrekin eta eragileak batu egin ginen, eta eraso horri erantzun genion.

Euskarak 365 egun!



Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunarekin lotuta badago ere, egun batekoa izan beharrean, euskaraz bizitzeko aldarrikapen ozena da Euskarak 365 egun kanpaina. Izan ere, euskaldunok, oraindik ere, badugu ozenago berba egiteko premia.

Euskaltzaleen Topaguneak proposatuta, Euskal Herrira zabaldu gura dugun mezu da, norbanakoari zuzenduta, norberak hartu behar duelako erabakia, euskaraz bizitzeko erabaki irmoa, gaur, bihar, etzi, egunero.

Plateruenaren zilar ikastaroak

Plateruenak kultura jarduera jarraitua izan du sortu zenetik hona. Egindako bidean, ekarpen ugari jaso izan ditu herritar, eragile eta erakundeetatik. Orain, bada, ikasitako hori herriarrekin partekatu guran, hiru ikastaro eskaini dizkigu:

- 1. Soinu teknikari lanak egiteko (10 ordu):**soinu ekipoak erabili behar dituzten herritar, sortzaile edota eragileentzat. Abenduaren 15ean eta 21ean, 18etatik 22ak arte.
- 2. Argi teknikari lanak egiteko (4 ordu):** argi teknikari lanean jakin-mina duen norbanako edota sortzailearentzat. Abenduaren 19an eta 26an, 20:00etatik 22:00ak bitartean.
- 3. Kontzertuak antolatzeke:** kontratazioa, antolaketa, komunikazioa, administrazio kontuak...Abenduaren 26tik 30era bitartean, egunero 17:00etatik 19:00ak arte.

Ikastaroek espero baino arrakasta handiago izan dute, itxaron-zerrenda izateraino. Zorionak, Plateruena!

Gaba hartan hitza hartu nion loak hartu aurretik. Itzartu zen bai, baina mutu dabil ordutik. #365ipuin Argia amatatu badu ere, hor jarraitzen du itzalak #365ipuin Bazekien zirt ala zart behar zuela. Baina ala horretan, palindromoaren kaiolan harrapatuta, bizitzeko beldurrez bizi zen dudati. #365ipuin Egia eta errealtatea nahasten zituen, batzuetan nahita eta besteetan oharkabe, baina etengabe #365ipuin Inspirazioaren bila zebilen. Inspirazioaren zain. Baina beti egiten zion izkin, ekinean zegoelako ezkutatuta, lanaren atzean. #365ipuin Bera huan elerkia, hi hintzan irakurtzen ez hekiana. Halan hago geroztik; hitzik gabe. #365ipuin Automobila azaleratu, abiada hartu, leihoak jaitsi eta ileari eragin. Askatasun simulakroa egiteko premia larria baitzuen #365ipuin Ilusioak egiaren aieruak ezkutatzeko hormak sortzen zizkion etengabe. Ene, zenbat ubeldura kopetean! #365ipuin "Hontzak hotza ontzat eman zuen hortzak dar-darka zituen arren" #365ipuin Ametsetan norabait alde egin, errealtate berriak sortuz. Etengabe pentsatzearen eta pentsatzeari uztearen arteko kimera. #365ipuin Lortu zuen liburua egitea! Pozarren Durangoko azokara eroan. Tsunamian galdu zitzaion betiko galduta, besteen orriek itota #365ipuin Esku hauek nireak dira, baina idazten dutena ez da nirea bakarrik. Esku hauek aurrekoenak dira, ingurukoena, eta ondorengoena. #365ipuin Sortu zaizkigun zauri guztiak seduzitu nahi ditut. Deskuidatzeko bidea erakutsiko diet, eta oharkabean, ahaztu egingo gaituzte. #365ipuin Udazkeneko, azken basoko, azken zuhaitzeko, azken hostoa. Hori da esperantza. #365ipuin Maritxu, marimutil, hiesdun, mari-zikin, emagaldun, marika... Batzuetan hitzak laban bihurtzen dira, batzuetan hitzek hil egiten dute #365ipuin Odeik txikia zenean eskuan zuen min, handitzean idazteari zion ekin, bihar amari kontatuko dizkio #365ipuin Oharkabean oharitu nintzen, azkenean, oharu nintzela #365ipuin Zinez sinestu nion zin egin zidan horri. Tamalez, inauteriak ziren egutegian. Mozorroa kendu arte itxaron beharko #365ipuin Bart egiarekin topatu nintzen eta bi gintonik edan behar izan nituen bera ahazteko #365ipuin Behin batean, musikari bat trikitixarekin melodia hau hasi zen jotzen, eta lainoak hasi ziren dantzan #365ipuin Korrika egiten hasi zen, gizartetik ihes egin nahian, baina hankak etxean utzi zituen #365ipuin Beste herrialde baterako joateko aukera

Berba gutxitan asko esaten duten ipuinak

284 ISTORIO JASO DITUGU #365IPUIN LEHIAKETAN

Hirugarren urtez, hitz gutxitan istorio handiak idazteko deia egin dugu ipuin laburren #365ipuin lehiaketan, eta erantzun ederra izan dugu! 284 ipuin jaso ditugu. Aurten, gainera, eskualdeko zenbait liburutegi, liburu-denda eta tabernatan postontziak ipini ditugu, eta ipuinak eskuz idatzi eta postontzietan

sartzeko aukera egon da.

Abenduaren 14an egin dugu sari bana-keta. Aurreko urteetan legez, Durangaldeko hiru artista izan dira epaileak, eta lantxo bat egin dute irabazleentzat. Nagore Txintxurretak ilustrazio bat prestatu du; Jon Ander Urkiagak idatzi bat; eta Xabi Zabalak bideo bat.



Twitter bidezko irabazlea

Iragana ez deusezte aldera gure amonak ez zituen egunak egutegitik ezabatzen. Horregatik, oraindik gure artean dagoela dirudi.

Ainhoa Urien

Eskuz idatzitako onena, adin nagusikoak

Handitan, txikitan nintzena izan nahiko nuke: gauza txikienarekin zoriontsua eta koloretako munduaren protagonista.

Andrea Basabe

Eskuz idatzitako onena, adin txikikoak

Aireak hegaka ekarritako hazia lurrean ernatu eta goizeko ihintzak busti zuen, ekaitzaren txinparta batek kiskali zuen arte.

Maidar Isasi



Udazkeneko ezinbesteko zita, hostotik orrira

27. HAUR LITERATUR ARETOAK
ASETU DITU IRAKUR ZALEAK

Udazkenarekin heldu da, urtero lez, Haur Literatur Aretoa. Aurten ere Zornotza, Berriz, Elorrio, Zaldibar eta Durangon aritu gara irakurzaletasuna lantzen, liburuekin jolasten, idazleekin berriketan, liburu erraldoia sortzen, antzerkia bititzen...

Saguganbara bizitzekoa izan DA!

Bisitaria ikusle izatetik parte-hartzaile izatera igarotzen hasi dela azpimarratu du balorazioan Durangoko Azokak, eta Saguganbara gunea izan da bereziki horren adierazle. Berbaro Elkartek kudeatutako gunean, ume eta gaztetxoak programazioaren erdigunean jarri ditugu 'Talentue plaza- ra' ekimenaren bitartez. Gainera, Saguganbara erreferente bihurtu da azokako bisitarien artean.



Abenduaren 30ean, urteko azken bertsoa

Abenduaren 30ean, urteroko zita izango dugu Plateruenean: azken bertso-saioa, urtea gano-raz amaitzeko parada ezin hobea. Aurten, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Miren Amuriza izango ditugu bertsoetan, eta Unai Iturriaga arituko da gai-jartzaile.

Saioa 22:30ean hasiko da. Sarrerak dagoeneko salgai daude Berbaroren bulegoan eta Plateruenean.



Arrosa eta Arantza

Udan, herriko erakusleihoei erreparatu genien, udako merkealdiko eskaintzak eta deskontuak zein hizkuntzetan zeuden neurtzeko.

Orduan, ondorio hau atera genuen: merkealdian eskara garesti dago Durangon. Ordutik hona, sei hilabete igaro dira eta egoerak okerrera egin du. Gaztelania gutxi balitz, ingelesera jo du neguko kanpainak.

Urrunera joan barik, alde zaharrean, Gabonetako eskaintza kanpaina ingelesez dago!

Badira urte batzuk merkealdi sasoiak MERKEALDIA kartela banatzen genuela Durangoko komertzioetan. Orduan, askok kartel bera erdaraz ere eskatzen zigten, bezeroek hitz horren esanahia jakingo ez zutelakoan.

Egun, durangarrek ez dute ikasi MERKEALDIA hitzaren esanahia, baina bai, antza, *Black Friday*, *Open*, *Christmas days*, *Christmas Shopping*, edo *Used clothes feeling young*. Lotsagarria! edo *shame on them?*

